

2015

LUGARITZ KULTUR ETXEA

donostiakultura.com

Arte eszenikoen programazioak aukera zabalaren eskaintza izan zuen ezaugarritzat, Las Grotésques taldearen originaltasuna, Claire Ducreux-en zolitasun intimista eta Teatro del Barrioren umore zorrotza uztartuz.

Aparteko aipamena egin behar zaio Teatro Estudio talde donostiarraren sorreraren 50. urteurrenaren ospakizunari, Lugaritzen ospatu baitzuten obra berri bat antzetzuz eta taldearen ibilbidea biltzen zuten objektuen eta irudien erakusketa eginez.

Haurrentzako antzerkian Teatro Paraíso eta Gorakada nabarmendu ziren eta beren azken produkzioak antzetzuz zituzten Lugaritzen. Gainera, La Rous konpainiak bereziki nabarmendu beharreko kontrapuntua eskaini zuen. Era berean, Markeliñeren proposamen eszeniko ibiltaria –Benta Berriko kaleetan ibili ziren– azpimarratu behar da.

Musika atalean, Jabier Muguruzak, punta-puntako musikariz osatutako talde baten laguntzarekin, eta Mikel Azpirozzen zuzendaritzapean emandako kontzertuak gailendu ziren, baita Mikel Urdangarinek emandako errezital intimista ere. Musikeneren Big Bandak eskainitako kontzertu ikusgarria amaiera bikaina izan zen.

Frantziako Robinson taldearen egonaldia ere aipatu behar da, dantza-produkzio bat garatu baitzuten Kultur Etxean, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuarekin elkarlanean garatutako Mugalariak proiektuaren baitan.

DSS2016Eurekin lotutako beste jarduera bat Olatu Talka izan zen, eta horren harira Antiguako frontoian diziplina anitzeko jaialdi bat egin zen.

Literaturaren eta liburuaren alorra ere landu zen Literaktum ekimenaren barruan, hitzaldiak emanez, lantegiak eginez eta jardunaldi bat antolatuz, honako artisten parte-hartzearekin: Antton Valverde, Maddi Ohienart, Patxi Zubizarreta eta Joserra Senperena.

Erakusketen atalean Eider Eibarrek eta Cruz Larrañetak egindakoak nabarmendu behar dira, interes handia piztu baitzuten ikusleen artean.

Beste atal batzuetan, hala nola Plus 55 programaren atalean proposatutako jardueretan, mintzaldiak, bideo forumak eta hondartzan urtero egin ohi den udako gimnasia-ikasta-



Mugalariak programa



Mikel Urdangarin



Kipúlalá, Eider Eibar

roa izan ziren.

Ikasturtean zehar Kultur Etxean bertan nahiz Antiguako eta Ibaetako beste leku batzuetan egin ziren ikastaroek eta lantegiek ere harrera oso ona izan zuten herritarren aldetik.

Liburutegian, erabiltzaileen datuak beste urteetako antzekoak izan ziren. Nabarmentzekoa da udan egindako fondoek lekualdaketa: gehien mailegatzen dena narratiba dela kontutari harturik eta erabiltzaile batzuk bigarren solairura igotzeko zailtasunak dituztela ikusita, lehenengo pisura jaitsi ziren eta eskuragarriago daude; materialak, berriz, goiko pisuan jarri ziren.

Azkenik, aipatu behar da elkarte gehiagok eskatu zutela Merkatuko ekipamendua erabiltzeko baimena eta Antiguako Haurtxokoaren eta Gaztelekuaren zerbitzua hedatzeko premia dagoela oraindik ere, zerbitzu hori guzti horretan bertan eskaintzen baita gaur egun.



Una niña, La Rous Teatro



Joseba B. Lenoir Grang

DATOS

ACTIVIDADES		
	NÚMERO	USUARIAS/OS
TOTAL	404	21.904
Teatro	71	5.878
Danza	8	1.006
Video	3	33
Música	16	3.746
Conferencias	3	74
Cursillos y talleres	109	1.639
Exposiciones	8	3.244
Reuniones y actividades de asociaciones	126	1.196
Alquiler de salas	6	1.224
Actividades de la Biblioteca	39	998
SERVICIOS		
	NÚMERO	USUARIAS/OS
TOTAL	322	48.332
Visitantes biblioteca		39.690
Haurtxokoa	102	2.306
Gaztelekua	100	1.334
Plus 55	82	1.676
Kzgunea	38	3.326
IT Txartela	54	486

**PRESTAKUNTZA
EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	68	623	29	165	39	398
2014/2015 ikastaroak	26	242	9	78	17	164
2015/2016 ikastaroak	42	381	20	147	22	234

**PRESTAKUNTZA
GIZONAK**

	GUZTIRA		Euskeraz		Gaztelaniaz	
	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak	Kopurua	Erabiltzaileak
GUZTIRA	68	246	29	105	39	141
2014/2015 ikastaroak	26	77	9	24	17	53
2015/2016 ikastaroak	42	169	20	81	22	88

Bisitariak GUZTIRA: **84.306**